

# UDAZKENEKO HAUR PROGRAMAZIOA EUSKARAZ

Urriak 7, larunbata. 12:00-18:00  
ITURRAMAKO CIVIVOXA



## PANTZART

### “Kolorez kolore”

(2-6 urte bitarteko haurrei zuzendutako ikuskizuna)

#### SINOPSISIA:

Kveta Pacovska ilustratzaile txekiarraren lan plastikoa oinarrituta “Kolorez kolore” koloreen gaia jorratzen du. David Larrinagaren musika lagun, kolorezko etxe bat sortuko dute artistek, eta horretarako txotxongiloak, itzalak, leihoak, kolorezko gurpilak eta Juan Kruz Igerabideren poesia erabiliko dituzte.

#### FITXA ARTISTIKOA:

Testua: Juan Kruz Igerabide. Aktoreak: Ainhoa Pineda, Santiago Ortega. Txotxongiloak: Santiago Ortega. Zuzendaritza: Elena Bezanilla. Musika: David Larrinaga. Iraupena: 45 minutu

Urriak 21, larunbata. 12:00-18:00  
MENDILLORRIKO CIVIVOXA



## GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO

### “Supituki”

(Familia osoari zuzendutako ikuskizuna)

#### SINOPSISIA:

Hastera doa, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoaren saioa, beti bezala musika joaz. Baina... arazo handi bat dute, kontzertua emateko kontratatu duten tronpetajole ospetsua ez da iritsi! Hala ere ikuskizunak jarraitu behar du, laguntxoak zai baitaude. Gari magia pixka egiten saiatuko da, denbora irabazteko. Montxo eta Joselontxo laguntzen saiatuko dira baina lagundu baino, dena suntsituko dute. Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoaren magiaz, komikotasunaz, musikaz, eta algaraz gozatuko dugu.

#### FITXA ARTISTIKOA:

Zuzendaria eta gidolaria: Ramon Irizar  
Aktoreak: Garikoiz Muñoz (Gari), Ramon Irizar (Montxo) eta Joxean Malvido (Joselontxo)  
Iraupena: 60 minutu

Azaroak 4, larunbata. 12:00-18:00  
SANDUZELAIKO CIVIVOXA



## TXOBORRO ETA TOR MAGOAK

### “Aztikeriak”

(4 urtetik gorako haurrei zuzendutako ikuskizuna)

#### SINOPSISIA:

Zer gertatuko litzateke mago batek, loak hartuta, bere ikuskizunera joatea ahaztuko balu? Oinarri hau hartuta Txoborrok eta Tor magoak erabat berritzailea den magia saioa sortu dute.. Antzerkia eta magia uztartuz unibertso magiko bat eraiki dute. Dena, logikatik gutziz aldendua. Baina... den-dena. Kartak, agerpenak, desagertzen eta beste balentria artean, eskapismo handi batekin ausartzen dira eta agian ikusle batek hegan egingo du!  
Ez duzu zure begiek ikusten dutena sinistuko!

#### FITXA ARTISTIKOA:

Zuzendaria eta gidolaria: Tor eta Txoborro magoak  
Iraupena: 75 minutu

Azaroak 18, larunbata. 12:00-18:00  
ITURRAMAKO CIVIVOXA



## AMAIA ELIZAGOIEN-OLAIA IRIARTE

### “Itoitz. Urpeko ipuinak”

(3-8 urte bitarteko haurrei zuzendutako ikuskizuna)

#### SINOPSISIA:


Katalin ttiki ttikia zenetik bere amak ekaineko azkeneko igandean esnatu, lorategitik zeuden lore politenak bildu eta egun horretan bakarrik ohikoa zen moduan, hitzik erran gabe autora sartzen zen. Katalinek dagoeneko bazekien, egun horretan amak Itoitzeko urtegiara eramango zuela, urtero lez. Zergaitik? Haurrentzako ipuin kontaketa musikatu da, “Itoitz. Urpeko ipuinak” ikuskizuna.  
Urtegi batera salto eginen dugu eta behin herri bat izan zen etxeetako istorio eta doinuetan murgilduko gara.

#### FITXA ARTISTIKOA:

Aktorea: Amaia Elizagoien  
Zuzeneko musika Olaia Inziarte  
Iraupena: 60 minutu

(\* Bertsoaroa 2017 programarekin batera)

Abenduak 16, larunbata. 12:00-18:00  
SANDUZELAIKO CIVIVOXA



## TXALO

### “Mendi tontorrean”

(2-8 urte bitarteko haurrei zuzendutako ikuskizuna)

#### SINOPSISIA:

Expidizio-buru den mendi-gidari bat (Eduerne) eta bere bezeroa (Txema) dira pertsonaiak. Hitz gutxiko emakumea bata, baina ekintzailea eta superstizioz bete. Txema, berriz, berritsu amorratua eta harroputza bezain berekoa... edozein prezioan gailurra harrapatzeko prest... osteria jaitsi eta ingurukoei kontatzeko. Gailurra harrapatuko dute, baina mendiko izpirituak, inguruak zaborrez eta banderolaz zikinduta daudelako haserre, mendekua hartu eta laino beltza bidaliko die mendizaleei, nora ezean utzi arte.

#### FITXA ARTISTIKOA:

Aktoreak Iraitz Lizarraga Alfonso Diez Aitor Fernandino  
Zuzendaria: Begoña Bilbao Lejarzég  
Iraupena: 60 minutu